

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

21 urte 'Naparraren' berririk gabe!

Josu Beaumont eta Juan Mari Olano
(*Amnistiaren Aldeko Batzordeen izenean*)

Joxemiel Etxeberria Donibane Lohizun-
nen desagerrarazi zutenetik, 21 udabe-
rri igaro dira jadanik, eta gertaturikoa
argitserako, auskalo beste zenbat urte
igaroko diren. Militante abertzalea
non dagoen ongien gorderiko «Estatu
Sekretua» da oraindik.

Inork ez du zalantzan ezartzen, Joxe-
miel Etxeberria *Naparra*, Estatuak
ordaindurik eta bere zerbitzura zihar-
duten kriminalek bahitu zutela. Zer
egin ote zuten berarekin? Itaundu, tor-
turatu, eta gero hil? Agian Lasa eta
Zabalarekin egin zuten modura? Agian
pertsonek berdine? «Espainiako eta
Frantziako Demokraziek», besteak
beste, *Naparra*, Pertur eta Popo mili-
tante abertzaleen bahiketaz eta ondo-
ren haiekin egin zutenaz, agian noiz-
bait, kontuak eman beharko dituzte
Euskal Herriko iritzi publikoaren aurre-
an.

Desagertuen kontuak diktaduretako
kontuak direlakoan bizi da gizartea,
baina euskal iritzi publikoak ezin du
ahantzi, aipaturiko hiru euskaldun
desagertuta daudela eta Madril eta
Parisko gobernuek *Top Secret* izenbu-
rua duen karpetak dituztela, non haiei
gertaturiko guztiaren berri jaso a e-
gon den. Hala ere, ez dugu itxaropenik
galduko, zeren egunen batean, ziur,
norbaitek argibideren bat emango
duela konbentziturik baikaude, eta
orduan, denok dakigun egia gordina
egiaztatuko da.

Badakigu krimen horien egileak
ez dituztela zigortuko, ezta agindua
eman zutenak ere, baina urte luzeetako
sufrikarioa amaitu eta hiru familiek
atseden pixkatxo bat hartzeko bederen
balioko du. Iragan maiatzean, Joxe-
mielen gurasoak Madrilgo Entzute-
gi Nazionalera joan ziren ADN frogak
egin eta egunen batean ADN Joxemie-



galdeiozu...

**Beste mendizale batzuen adierazpenak
entzun ondoren, badirudi Himalaiara
txangoa egitera zoaztela. Egia al da hori?**

Mikel Basabe (Bilbo)

Beharbada, hori pentsa daiteke, ikusita aurten Everestera
igo den jende pila eta hara igo garen euskaldunak zazpi
garela. Hori pentsatzea ez da harritzekoa; badirudi pasea-
tzera joaten garela hara, eta denok joan gaitezkeela. Bai-
na, nire ustez, ez da horrela. Everest munduko mendi al-
tuena da, eta gu hara joan garen bezala, munduko toki
guztietakoak inguratu dira. Gaur egun, gero eta jende
gehiago dabil Himalaian. Baina horrek ez du esan nahi pa-
seatzera joaten garenik; kosta egiten da mendi hura igo-
tzea. Jendea igo igotzen da, baina ez halamoduz.



**EDURNE
PASABAN**

Mendizalea

Ekainaren 26tik aurrera **Mixel Etxeberri • Seaskako lehendakaria** izango
da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

lenarekin kontrastatu ahal izan dadin.
Nor mintzatzen da hauen sufrimen-
duaz? Zer egin dute, eta zer egiteko
asmoa dute gure lehendakariak? Nola-
tan ez du instituzioen, giza eskubideen
batzordeen eta eragile ororen arretarik
lortzen hiru euskaldun desagertuen
drama potoloak? Donostiako Haize
Orrazian elkartzen diren kazetariak,
zenbat ordu eman dituzte drama hauen
ikerketan?

Errazena begiak ixtea da, noski;
baina jarrera horretan dabilenak, seni-
tartekoak mintzatzeaz gain, etsipena,
utzikeria edota konplizitatea erakutsi
baino ez du egiten, eta hiru militante
politiko bahitu eta desagertuta daude-
nean, erantzukizun handiagoz jokatu
beharko luke gure herriak, instituzio
eta eragile sozial eta politiko oro
aurretik direla! Joxemiel, borraroe-
k ahortziko haute agian, baina Euskal
Herriak ez!

Turkiako preso politikoak erailak

Igor Navarro (*Askapena, AFAPP, Gazte
Asanblada, Gestorak, Kakitzat, Komite
Internazionalistak, Senideak, Pipi eta
Zaramazuloren izenean*)

DHKC, TKP(ML), TKIP turkiar erakun-
de komunistetako eta Kurdistango PKK
independentistako 200 preso politiko,
eta iraultza hauen 350 senide hiltzerai-
noko gose greban ari dira. Gaur egun
arte gutxienez 24 preso eta 5 senide hil
dira. 900 preso politikok ekin zioten
protestari Turkiako Gobernuaren kar-
tzela politika suntsitzalea salatze-
ko, beronen aginduz 11.000 turkiar eta
kurdu preso politiko F moduko kartze-
letan (bakartze osokoak) sartzea eraba-
ki zuenean. Abenduaren 19an, armada
eta polizia faxista gose grebalariek zeu-
den kartzeletara sartu ziren. Sei egun
odoltsuen ostean, 32 preso politiko

erail zituzten, eta ordutik hona beste
100 «desagerturik» daude. Horren oste-
an, mila preso gehiago batu ziren gose
greba mugagabera. Presoen 240 eta
senideen 225 egun baino gehiagoko
baraualdian, hildako horiez gain 100
preso politiko koman edo itzulezinezko
lesioekin daude, janaria derrigorrez
hartzearen torturapean. F moduko zie-
getan egunero jipoitzen dituzte, irain
moduan kaskamotz uzten dituzte, bisi-
tarik ezin dute jaso, 24 ordutan bolu-
men altuan ipinitako musika militarra
entzutera behartzen dituzte, gorputz
atalak apurtzen dizkiete, hankak eta
eskuak besteak beste, beren kabuz balia
ez daitezela... Erietxeetan familiarrei ez
diete jaramonik egiten, medikuek erre-
presaliatuei dieten izuagatik eta azke-
neko hilabeteen 600 senide eta solida-
rio baino gehiago atxilotu eta
torturatuak izan dira, eta hauetatik
hamaikaxo espetxeratuak.

Turkia Europar Batasunean sartzeko
lehentasuna duen hautagaia da, beraien
kutxatik 2,3 bilioiko laguntza jaso berri
izan duena. Turkia estatu faxista eta
diktatoriala da, non 1980. urtetik aurre-
ra bere politika errepresiboarekin 4.000
disidente politikoren heriotza eta beste
1.100en desagerketa izan den. Turkian
7.600 heriotza zigorraren eskaera bidera-
tuta daude, 140 elkarte debekatuta eta
kriminalizatuta daude, eta «Lurraldea-
ren» politikak eraginda 293 herri eba-
kuatuak izan dira. Bere gobernu faxis-
tak ezingo luke iraun, europarren eta
yankien laguntza garrantzitsua jaso
barik. Hauek, beraien hipokresi demo-
kratikoarekin, puztu egiten dituzte
milioi eta armekin. Arabatik GAMESA
eta beste enpresa batzuetatik puntako
teknologia eta arma asko ateratzen
dira. Eta Turkiara doan turismoak ere
onura ekonomikoa ekartzen dio gober-
nu honi. Orain arte turkiar eta kurduar
iraultzaileen artean 66 heriotza eragin
dituen borroka honekin elkartasuna
adierazteko aukera ona gure eskuetan
dago.

montxo

